

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO

EAE-KO PROGRAMA



JARRAIPEN-MISIOA

Honduras 2023

2023ko urtarrilak 25-28

Txostenaren egilea:

(zehar)
errefuxiatuekin

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Laguntzaileak:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Bilbo, 2023

EDUKIEN AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------------|----|
| EAEko ordezkarien taldea..... | 3 |
| Egindako bilerak..... | 4 |
| Eskertzak..... | 5 |
| Balorazioa eta ondorioak..... | 6 |
| Bibliografia..... | 25 |

EAE-KO ORDEZKARIEN TALDEA

EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria.

Ainara Arrieta Archilla, eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Karen Rodríguez Guinea, eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

EUSKO LEGEBILTZARRA (Giza Eskubide eta berdintasun Batzordea)

Leixuri Arrizabalaga Arruza, batzordeburua.

Iñigo Iturrate Ibarra, Euzko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos.

Oihana Etxebarrieta Legrand, EH Bildu.

Miren Gallastegui Oyarzábal, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak.

Iñigo Martínez Zatón, Elkarrekin Podemos – IU.

Carmelo Barrio Baroja, Euskal Talde Popularra – Ciudadanos.

Juan Carlos Areizaga Hernandez, legelaria.

GIZA ESKUBIDEEN ANTOLAKUNDEAK

Sonia González Martín, Bakea eta Alkartasuna Euskadi Fundazioa.

Inmaculada Múgica Flores, ALDARTE, Lesbiana, Gay eta Transexualen arreta-zentroa.

Arantza Chacón Ormazabal, Zehar-Errefuxiatuekin Elkartea.

Verónica Álvarez García, Zehar-Errefuxiatuekin Elkartea.

EGINDAKO BILERAK

Tegucigalpa, 2023ko urtarrilaren 25etik 28ra.

Giza eskubideen aldeko erakundeak, mugimendu sozialak eta herritarren mugimenduak:

- Honduras Diversa elkarte
- Mujeres Diversas elkarte
- Calidad de Vida elkarte
- Nekazarien Zentral Nazionala – CNTC
- Demokraziarako Ikasketa Zentroa – CESPAD
- Emakume Nekazarien Garapen Integralerako Kontseilua – CODIMCA
- Hondurasen Atxilotu Desagerrarazien Senideen Batzordea – COFADEH
- Hondurasko Gazteen Kontseilua – CONJUVEH
- Hausnarketa, Ikerketa eta Komunikazio Taldea – ERIC
- Komunitatearen aldeko Zerbitzuen Hondurasko Institutu Ekumenikoa – INEHSCO
- La Vía Campesina erakunde
- Giza Eskubideen Hondurasko Emakume Defendatzaileen Sare Nazionala
- Reportar Sin Miedo

Nazioarteko babes-antolakundeak:

- Nazioarteko Bake Brigadak – PBI Honduras
- Protection International, Erdialdeko Amerika

Nazioarteko organismoak:

- Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa: herrialdeko ordezkaria

Hondurasko erakunde publikoak:

- Hondurasko Errepublikako Kongresu Nazionala: Justizia eta Giza Eskubideen Batzordea; Gizarte Zibilarekiko Lotura eta Parte-hartze Komunitarioko Batzordea; Legediaren eta Konstituzio Gaien Batzordea; eta Genero Ekitatearen Batzordea.
- Giza Eskubideen Hondurasko Komisario Nazionala – CONADEH.
- Giza Eskubideen Idazkaritza.

Diplomaziako kideak:

- Espainiaren Hondurasko enbaxada
- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia – AECID

ESKERTZAK

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa **elkartasun politikoa adierazteko tresna**¹ da, eta mehatxuen eta jazarpenaren mendeko egoeretan jarduten duten giza eskubideen defendatzaileak **babesten laguntzea** du helburu. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatu dugu EAEko ordezkariak lekuan bertan bisita egitea.

Era berean, modu bat da EAEko gizarteari erakusteko nola dauden etsaitasunezko egoeretan giza eskubideen alde diharduten taldeak, antolakundeak eta komunitateak. Esperientzia eta ezagutza horiek ekarpen oso garrantzitsua dira gizarte-eraldaketarako gure prozesuetan.

EAEko ordezkariok eskerrak eman nahi dizkiegu giza eskubideen antolakundeei, nekazarien eta indigenen komunitateei eta hiri-sektoreei, jaso dugun harrerarengatik eta bizitza duina eta lurraldea babesteko eta gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitzeko lan nekaezina egiteagatik. Eskerrik asko guztiei beren proposamenak, salaketak, minak eta esperantzak eskuzabaltasunez azaltzeagatik.

Bereziki nahi dizkiogu eskerrak eman Honduras Diversa elkarteari; izan ere, elkarte horrek Defendatzaileak Babesteko EAEko Programan parte hartu ondoren egin den jarraipenari esker egin du bisita EAEko ordezkariak. EAEko ordezkariok arreta berezia jarriko dugu haien segurtasuna eta babesa zaintzeko, baita helarazi dizkiguten eskaerak bete daitezen ere.

Eskertzen ditugu, halaber, tokiko erakunde publikoek, diplomaziako kideek eta Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Hondurasko Bulegoak eskaini diguten denbora eta elkarlana.

¹ <https://www.euskadi.eus/giza-eskubideen-defendatzaileak/web01-s1lehbak/eu/>

BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Tegucigalpan bilerak egin eta lekukotzak jaso ondoren eta aurretiaz dokumentazioa aztertuta, EAEko ordezkartzako kideok honako hau ADIERAZTEN DUGU:

LEHENA – Biziki kezkatuta gaude LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen hilketen kopuru handia eta gorakada direla eta. Izan ere, 2022an indarkeriazko 43 heriotza izan dira.

Gorrotoko diskurtso eta delituen ugaritzeari eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak estigmatizatu eta diskriminatzen dituzten aurreiritziei aurre egiteko neurri eraginkorrak hartzeko eskatzen dugu.

Front Line Defenders-ek adierazi zuenez, 2022an «indarkeria bortitza, inpunitatea, kriminalitatea, diskriminazioa eta genero-identitateen aurkako transfobia konbinatzeak mugatu egin zuen LGTBIQ+ komunitateko giza eskubideen defendatzaileen lana».²

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak dioenez (CIDH), «LGBTI pertsonak, betitik, **egiturazko bereizkeriaren, estigmatizazioaren, hainbat indarkeria moduren eta beren oinarritzko eskubideen urraketen** biktima izan dira».³ LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako egiturazko indarkeria horren ondorioz, giza eskubideen beste urraketa batzuk gertatzen dira, diskriminazio- eta bazterketa-ereduetan oinarrituta.

Alde horretatik, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen antolakundeek lan duina lortzea galarazten dien diskriminazioa eta lan-bazterkeria azpimarratzen dituzte, batez ere trans emakumeen kasuan, sexu-esparrutik kanpoko lana eskuratzeko zailtasun handiak baitituzte. Ondorioz, LGTBIQ+ pertsonak arrisku handiagoa dute pobrezian erortzeko, eta horrek areagotu egiten du banden, poliziaren eta beste segurtasun-indar batzuetako kideen eta, oro har, gizartearen indarkeria pairatzeko arriskua.

Halaber, ohartarazten dute kolektiboa diskriminatu egiten dutela osasun-zerbitzuak baliatzeko orduan; bereziki, emakume lesbiana eta bisexualen sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetan. Transexualen asistentzia sanitarioan ere diskriminazioa sufritzen bide du. Adibidez, transexualek ez dute hormona-terapiari espezializatutako mediku-akonpainamendurik trantsizio-prozesuetan, eta horrek ondorio larriak izaten ditu haien osasunean eta osotasun fisiko eta emozionalean.

² Front Line Defenders (2023), *Global Analysis 2022*, 2023ko apirila, 17. or.

³ Vicky Hernándezek eta beste batzuek Hondurasen aurka izandako auziaren epaia, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak 2021eko martxoaren 26an emana, Hondurasko Estatua kondenatzen duena Vicky Hernándezen bizitza-eskubidea eta osotasun pertsonalerako eskubidea urratzean erantzukizuna izateagatik, baita Vicky Hernándezen senideen eskubideak urratzeagatik ere, prozesu egokiari eta babes judizialaren bermeari dagokienez. [Resumen 422 esp.pdf \(corteidh.or.cr\)](#).

Bestalde, salatzen dute beste eskubide zibil batzuk baliatzea debekatuta daukatela, hala nola sexu bereko bikoteei adoptatzea edo berdintasunezko ezkontzarako eta berdintasunezko elkartzeko librerako eskubidea⁴ ukatzen zaie, eta horrek sexu bereko bikoteei galarazi egiten die arauzko bikoteen baldintza beretan kobratzea alarguntasun-pentsioa edo egitea ezkontza-bisitak. Halaber, trans pertsonen izena aldatzeko erraztasunak eman behar dituen, **Vicky Hernández eta besteren Hondurasko Estatuaren aurkako auziaren epaia** betez⁵.

Epaia horren ondoriozko betebeharrak betetzeko, 2022ko maiatzean, ekitaldi publiko bat egin zen, Hondurasko Estatuak Vicky Hernándezen hilketan zuen nazioarteko erantzukizuna aitortzeko, eta gobernuak konpromisoa hartu zuen epaian ezarritako gainerako bederlatzi erreparazio-neurriak betetzeko.⁶ Hala ere, EAEko ordezkariak Hondurasera joan zen unean, bakar bat ere ez zegoen beteta.



Eskubideen urraketa eta egiturazko bereizkeria horri herrialdean gertatzen diren beste indarkeria mota batzuk gehitzen zaizkio. 2022an, Kukulcán, Awilix eta Ixchelek (KAI) osatutako Giza Eskubideen Behatokiaren datuen arabera, 155 bat lagunek bestelako erasoak salatu zituzten, hala nola mehatxuak, polizia-jazarpena eta eraso fisikoak.

⁴ Hondurasko Errepublikako Konstituzioak, zeina 2004an Espainiaren laguntzarekin berritu baitzen eta 2005ean berretsi, 112. artikuluan debekatu egiten ditu sexu bereko pertsonen arteko ezkontza zibila eta izatezko elkarketak. Halaber, 116. artikulua debekatu egiten du sexu bereko bikoteek osatutako ezkontza edo izatezko bikoteek haurrak adoptatzea. Bi debeku horien ondorioz, tratu berezia, desorekatua eta baztertzaila sortzen da, sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritua, eta berdintasuna babesteko eta bereizkeria debekatzeko eta zehatzeko konstituzio-klausulak urratzen dira.

⁵ Epaia erreparazio-neurri batzuk ezartzen ditu; besteak beste, hau: *viii) genero-identitatea aintzatezteko prozedura bat egitea, pertsonen beren nortasun-datuak nortasun-agirian eta erregistro publikoan beren genero-identitatearen arabera egokitzeko aukera izan dezaten. Resumen 422 esp.pdf (corteidh.or.cr).*

⁶ <https://criterio.hn/en-acto-publico-reconocen-culpabilidad-del-estado-por-asesinato-de-vicky-hernandez/>

Cattrachas Sare Lesbikoaren arabera, **2017 eta 2022 bitartean, LGTBI komunitateko 194 pertsona bortizki hil zituzten**, eta 2022a izan zen errepresio handieneko urtea, 43 heriotza bortitzekin.⁷ KAIren arabera, hilketa horien % 80 zigorrik gabe geratzen dira eta % 11 bakarrik ikertzen dira.

Hilketa horiek⁸ LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen aurkako gorrotoaren eta egiturazko indarkeriaren adierazpen goren dira, eta, KAIren arabera, «herrialdeko LGTBIQ+ komunitateko kideen aurka egiten den eta maiz onartzen eta minimizatzen den abusukate luze baten ekintza muturrekoenak dira».⁹ Izan ere, LGTBIQ+ komunitateko pertsonen eskubideak murrizten dituzten arau-esparruak eta instituzio-jarduerak, inpunitate-indize handiekin batera, mezu argia ematen dute aditzera, hots, Estatuak kolektiboaren aurkako indarkeria eta diskriminazioa onartu egiten dituela. Eta horrek eragin zuzena du imaginario kolektiboan. Eta hori indartu egiten da estereotipoen eta aurreiritzien bidez elikatutako **gorrotozko diskurtsoen ugaritzearekin**. Izan ere, diskurtso horiek gorrotozko eraso bortitzak ekar ditzakete, eta NBEk adierazi du «Hondurasen eguneroko errealitatean dagoen arrisku bat [...]» direla.¹⁰

2021eko hauteskunde aurreko kanpaina, adierazpen-askatasunaren eta erlijio-askatasunaren babespean, gorrotozko diskurtso politikoak erabili ziren LGTBIQ+ komunitateko pertsonak estigmatizatzeko eta kriminalizatzeko, bizitza eta familia-eredu tradizionala defendatzeko estrategia gisa, abortua eta berdintasunezko ezkontza legeztatze proposamenen aurrean. Gorrotozko diskurtso horiek ondorio larriak izan zituzten pertsonen gainean, gora egin baitzuen kolektiboaren aurkako indarkeriak. Horren froga izan zen Erika Tatiana Martínezen hilketa, Hondurasen independentziaren bigarren mendeurrena ospatzeko Juan Orlando Hernándezek 2021eko irailean egindako hitzaldiaren ondoren¹¹.

Ondoren, Xiomara Castroren¹² egungo gobernuaren lehen urtean, Hondurasko Alderdi Nazionaleko politikariek, hedabide korporatiboekin, talde erlijiosoekin eta hainbat botere-sektoreekin batera, LGTBIQ+ komunitatearen aurkako gorroto-hitzaldiak egin zituzten behin eta berriz, kolektiboaren pertsonen eskubide zibilak legeztatze ahalegin oro geldiarazteko¹³.

⁷ https://www.cattrachas.org/files/ugd/b262b8_31318f169864488ba9052c0bb8626dbc.pdf

⁸ Hondurasen 2022an erregistratutako 43 LGTBQ komunitateko pertsonen hilketetatik, % 64 gizon homosexualen aurkakoak izan ziren; % 52 suzko armekin egin ziren eta % 31 Tegucigalpan gertatu ziren. Hemen:https://www.cattrachas.org/files/ugd/b262b8_31318f169864488ba9052c0bb8626dbc.pdf

⁹ <http://conexihon.hn/2023/02/09/en-tegucigalpa-y-2022-el-lugar-y-ano-mas-violento-contr-la-comunidad-lgbtqi/>

¹⁰ <https://honduras.un.org/es/192259-honduras-y-el-mundo-necesitan-amor-no-odio>

¹¹ <https://agenciapresentes.org/2021/09/28/a-pocos-dias-del-discurso-de-odio-del-presidente-de-honduras-asesinaron-a-una-militante-trans-de-su-partido/>

¹² Libertad y Refundación (Libre) alderdiko Xiomara Castroren gobernu 2022ko urtarrilaren 27an jarri zen abian, 2021eko azaroaren 28an Hondurasko hauteskunde orokorrak irabazi eta Hondurasko Errepublikako presidente gisa juramentua egin ondoren. Haren agintaldiak 2026ko urtarrilaren 27ra arte iraungo du, egun horretan haren ondorengoa inbestitu behar baita.

¹³ <https://criterio.hn/partido-nacional-continua-discursos-de-odio-hacia-comunidad-lgbtqi/>

Puntu horretan, beharrezkoa da hedabideek gorrotozko mezu eta diskurtsoak berritzeko eta normalizatzeko betetzen duten zeregina aipatzea, zeinak bereizkeria-olatuak sortzeko bidea ematen baitu, mezu horien eraginak «herritarrak gorroto-, jazarpen- eta desplazamendu-krimenak egitera eraman baititzake».¹⁴ Era berean, RELE Adierazpen Askatasunaren Errelatoretza Bereziaren) estandarren arabera, gorrotozko adierazpenak jazartzeko, pertsekutatze edo eskubide-gabetzeak justifikatzeko erabil daitezke, baita hilketa arrazionalizatzeko ere.¹⁵

Gorrotozko diskurtsoak ugaritzearen eta LGTBIQ+ kolektiboarekiko indarkeria areagotzearen ondorioz, eta **inpunitate-indize handiei eta ikerketarik ezari buruzko kezka handia dela eta**, antolakunde eta mugimendu sozialek salatu dute «borondate politikoa falta dela kolektibo horretako kideen aurkako gorrotozko krimenak eta indarkeriazko heriotzak ikertuko dituen unitate espezifiko bat sortzeko»¹⁶. Gainera, «ministerioen, poliziaren eta perituen ikerketa-protokolo bat» sortzeko eta ezartzeko eskatzen dute, «giza eskubideen ikuspegia eta sexu-, gorputz- eta genero-aniztasunaren ikuspegia barne hartuko dituen zeharkako ardatz gisa, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen aurka egindako delituak ikertzeko».¹⁷

LGBTIQ+ komunitateko pertsonen antolakundeek kolektiboaren egoerari buruzko kanpaina masiboak eta sentsibilizazio-estrategiak ere eskatzen dituzte, bereizkeria eta genero-indarkeria prebenitu eta geldiarazteko. Halaber, arreta-protokoloen aplikazioa indartzeko eta zaintzeko eskatzen dute, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen hainbat arlotan (ikastetxeetan, osasun-zerbitzuetan, justizia-administrazioko instantzietan, erakunde publikoetan eta askatasungabetzeko zentroetan) pairatzen dituzten eskubide-urraketak eta diskriminazioa saihesteko.

BIGARRENA – Kezkaturik gaude, eta hala aditzera eman nahi dugu, giza eskubideak, herri indigenak eta garifun herria, nekazari-komunitateak, lurra, lurraldea eta ingurumena eta emakumeen eskubideak defendatzen dituzten pertsonen pairatzen dituzten mehatxuak, utzarazte behartuak, kriminalizazioa, judizializazioa eta estigmatizazioa dela eta. Giza eskubideen defentsa-ekintza baketsua dela eta, aintzatespena eta elkartasuna adierazi nahi diegu.

Alde horretatik, Defendatzaileak Babesteko Mekanismo Nazional bat izateak duen balioa aintzatesten dugu, eta eskatzen dugu beharrezko diren giza baliabideak eta baliabide materialak eman diezazkiola agindua behar bezala bete ahal izan dezan, ikuspegi intersektional eta humanizatzaile batetik.

¹⁴ <https://reporterosdeinvestigacion.com/2021/11/04/discursos-de-odio-en-los-medios-ha-generado-crimenes-de-odio-contr-personas-lgtbi/>

¹⁵ <http://www.oas.org/es/cidh/expresion/docs/informes/odio/Expresiones%20de%20odio%20Informe%20Anual%202004-2.pdf>

¹⁶ Honduras Diversa elkarteak, *Agenda Legislativa por los Derechos LGBTQI+*, 2023ko urtarrila (9. or.).

¹⁷ *Ibidem* 16. (24. or.)

Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak¹⁸ bildutako datuen arabera, 2021ean, gutxienez giza eskubideen 302 defendatzaile eta kazetari izan ziren erasoen biktima (209 defendatzaile eta 93 kazetari); eraso horietan, mehatxu eta jazarpenetatik hasi eta hilketetarainokoak izan ziren. Biktimotatik, 119 Hondurasko herri indigenetakoak edo afro-hondurastarrak dira, eta 169 lurra, lurraldea eta ingurumena babesten ziharduten pertsonak. Bestalde, Landako Langileen Zentral Nazionalak (CNTC) salatu duenez, «2010. eta 2021. urteen artean, lurra eta lurraldea defendatzen duten 165 pertsona hil zituzten, eta kasu horien % 96 inolako zigorrik gabe geratu dira».¹⁹ Giza eskubideen antolakundearen arabera, lurjabeak, nekazaritzako eta industriako enpresak eta Estatuaren instantziak dira lurra, lurraldea eta ingurumena babesten dituzten pertsonen erasotzaile nagusiak.

Front Line Defenders²⁰-ek, aurtengo apirilaren 4an, HRD Memorial-en datuetatik abiatuta egindako azken analisi globala aurkeztu zuen. Analisi haren arabera, **2022an Honduras Amerikako laugarren herrialdea izan zen, eta munduko bosgarrena, giza eskubideen defendatzaile gehien hil zituzten herrialdeen artean.** Guztira, hamazazpi pertsona hil ziren. Lurrerako eskubidearen, ingurumenaren eta herri indigenen eskubideen defentsa-esparruari eraso zitzaion gehien; alegia, hilketa guztien erdiak ia (% 48) esparru horretan izan ziren.

2023ko lehen hiru hilabeteetan, HRD Memorialek²¹ lurraren eta lurraldearen defentsarekin lotutako bederatzi pertsonaren hilketak erregistratu ditu gutxienez (defendatzaileen eta senideen artean) Hondurasen; gehienak, Bajo Aguán eskualdean. Horien artean daude Jairo Bonilla eta Aly Domínguez, Guapinol ibaiaren defendatzaileak;²² EAEko ordezkariaren bisita baino egun batzuk lehenago hil zituzten.

Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenaren arabera, **Hondurasko emakume defendatzaileen** kasuan, «lurra eta lurraldea defendatzen dutenen aurkako erasoak (% 38) eta egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea defendatzen dutenen aurkakoak (% 15) nabarmentzen dira. Ez dira amaitzen komunitateei eta lurraldeei kalte egiten dieten erauzketa-, basogintza-, meatzaritza- eta turismo-proiektuen kontra dauden pertsonen aurkako erasoak. Aipagarriak dira komunitate indigenen utzarazteen esparruan defendatzaile garifunen aurka egiten diren erasoak eta lurraren defendatzaile kriminalizatuen justizia bilatzeko prozesuetan laguntzen duten pertsonen aurka egiten direnak»²³. Eraso gehienetan arrazakeria eta misoginia izaten dira.

¹⁸ *[INFORME ANUAL 2021 OACNUDH WEB final](#).

¹⁹ Lurraren eta lurraldeen defendatzaileen kriminalizazioari eta judizializazioari buruzko jarrera publikoa ([cntc.hn](#)).

²⁰ https://www.frontlinedefenders.org/sites/default/files/1535_fld_ga23_web.pdf.

²¹ [HRD Memorial – Giza eskubideak defendatzeko hil zituzten pertsonak oroitzen](#).

²² <https://www.guapinolresiste.org/post/alerta-ante-asesinato-de-defensores-en-guapinol>.

²³ <https://im-defensoras.org/2023/04/registro-mesoamericano-de-agresiones-contradefensoras-2022-datos-anales-preliminares/>

Hondurasko Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Sare Nazionalaren²⁴ aurkako erasoen erregistroaren arabera, nagusiki hauek dira erasotzaileak: ezezagunak (% 19), zeinak sarritan herrialdeko botere faktikoekin lotuta egoten diren, erauzketa-negozioekin eta krimen antolatuarekin lotutako eragile gisa; polizia (% 18); agintari publikoak (% 17).

Defendatzaileei erasotzeko moduek **eredu argi batzuei** jarraitzen diete, eta **beldurraren bidez gizarte-borrokak geldiaraztera eta desmobilizatzerara bideratuta** egoten dira. Eta, CIDHeK dioen bezala, «ondorio biderkatzailea izaten dute, pertsonari erasotzetik harago doana; izan ere, erasoak jarduera errepresaliazteko egiten denean, beldurra eragiten du, eta antzeko kausak defendatzen dituztenengana zabaltzen da beldur hori»²⁵.



Hondurasko antolakunde eta mugimendu sozialek adierazten dute ohikoa dela defendatzaileen aurkako errepresio-estrategiak pertsona horien zilegitasuna eta sinesgarritasuna zalantzan jartzeko difamazio-ekintzekin hastea —hedabideetan desinformazio-kanpainak ere egiten dira haien kontra— eta era bateko eta besteko mehatxu, jazarpen eta erasoak eginez jarraitzea, komunitateetako sare soziala eta defendatzaileen gizatasuna eta duintasuna suntsitzeko helburuarekin. Emakume defendatzaileen kasuan, mehatxuen artean sexu-indarkeria ere egoten da, eta haien alaben kontrakoa ere izaten da. Hori ikusita ere, Poliziak ez du ezer egiten arriskuan dauden komunitateak eta defendatzaileak babesteko; are gehiago, Poliziaren eta Estatuko edo arlo pribatuko beste segurtasun-indar batzuen larderia eta errepresioa ere aipatu behar da. Horren erakusgarri dira lurraldeak kentzeko kasuak, lurraldeetan ezarri

²⁴ <https://redefensorashn.red/registro-de-agresiones>.

²⁵ CIDHeK Hondurasko defendatzaileen hilketak gaitzetsi ditu (oas.org).

diren erauzketa-proiektuen eta inguruko funtzionario, alkate eta enpresen arteko aliantzen ondoriozkoak, baita familia eta komunitate osoei lurraldeak utzarazteko kasuak ere; biziki larriak izan dira, adibidez, Punta Piedra eta Triunfo de la Cruz lurralde garifunetan.

Arlo zibiko-demokratikoaren narriadura larriaren testuinguruan kokatzen diren errepresio-estrategia horien ondoren **kriminalizazio-prozesuak egoten dira, zuzenbide penala modu desegokian erabiliz, giza eskubideen defentsan egiten den bidezko lana kriminalizatzeko**. 2010. eta 2021. urteen bitartean, Hondurasen lurraren eta lurraldearen 2.470 defendatzaile kriminalizatu zituzten²⁶.

Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak dioenez, «defendatzaileak kriminalizatzeko kausetako bat tipologia anbiguoko delituak erabiltzean datza [...]; kausa horiek legezketasun-printzipioaren aurkako interpretazio diskrezionalak eragin dituzte, protesta sozialen edo lurraren eta lurraldearen defentsaren testuinguruetan bereziki»²⁷. Delitu hauek ere egotzi ohi zaizkie defendatzaileei: usurpazioa; ordena publikoa asaldatzea; desordena publikoak; legez kanpoko bilerak eta adierazpenak egitea; elkarte terrorista; delituak egiteko elkartzea, edo garraio publikoa eta azpiegitura arriskuan jartzea.

Puntu honetan, aipamen berezia merezi dute **Zigor Kodearen erreformek, Kongresu Nazionalak 2021eko urriaren 7an onartutakoek**²⁸. Horietan, usurpazio-delitua espazio publikoetara hedatu zen, zigorrak larriak jartzea erabaki zen eta etengabeko delitu gorien figura sartu²⁹. Figura horri esker, posible da prozesu lasterrak aplikatzea, astungarriak gehitzen dira eta agindu judizialik gabeko utzarazte prebentiboaren figura eransten³⁰. Erreforma horiek legez kontra murrizten dituzte, besteak beste, elkartzeko askatasuna, bilera baketsuak egitekoa, gai publikoetan parte hartzekoa eta giza eskubideak defendatzeko eskubidea, eta aukera ematen dute, besteak beste, protesta sozialen testuinguruan espazio publikoak okupatzea zigortzeko. Gainera, antolakunde eta mugimendu sozialek salatzen duten moduan, larriagotu egiten dute lurra eskuratzearen inguruan dagoen gatazka-egoera, eta mesede egiten diete elite politiko eta ekonomikoei, guztien ongiaren eta justizia sozialaren aldeko borroka-prozesuen aurka. Hortaz, ez dago herritarren partaidetzarako giro egoki eta segururik, arau-esparruak, politika publikoek eta zenbait praktika instituzionalek eremu zibiko-demokratikoa mugatzen jarraitzen baitute.

Defendatzaileen aurkako kriminalizazio eta jazarpen judizialeko prozesuen aurrean, antolakunde eta mugimendu sozialek salatzen dute justizia-sistemak ez duela funtzionatzen justizia eskatzeko prozesuetan. Horrela, salaketak defendatzaileek egiten

²⁶ Lurraren eta lurraldeen defendatzaileen kriminalizazioari eta judizializazioari buruzko jarrera publikoa (cntc.hn).

²⁷ [https://oacnudh.hn/wp-content/informe2022/INFORME ANUAL 2021 OACNUDH WEB .pdf](https://oacnudh.hn/wp-content/informe2022/INFORME%20ANUAL%202021%20OACNUDH%20WEB%20.pdf).

²⁸ 91/2021 Dekretua.

²⁹ Zigor Kodean erreforma berriak indarrean jartzea kezkarria da Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarentzat | Conexihon.

³⁰ CIDHeK kezka adierazi du protesta-eskubidean eragin erregresiboa izango luketen lege-erreformak sartu direlako indarrean Hondurasen (oas.org).

dituztenean, ez da judizializatorik izaten, eta, horrez gain, aurrera egiten duten salaketak gehiegi luzatzen dira, prozesuek aurrera egin ez dezaten. 2021eko ekainean, CIDHeK ebatzi zuen Hondurasen giza eskubideen defendatzaileen aurka egindako delituen % 90 zigorrik gabe geratzen zela.

Bestalde, defendatzaileen aurkako kriminalizazio- eta judizializazio-prozesuak absoluzio-epaiekin amaitzen direnean, edo ezesten direnean, neurritz gairik atzerapenak izaten dira askatasun-gutuna lortzeko edo atzitze-agindua desagerrarazteko, eta agerian geratzen da Hondurasko justiziaren berehalakotasuna eta eraginkortasuna selektiboak direla.

Horrela, bada, justiziarako sarbidea, lehen bezala, egiturazko arazoek mugatzen dute oraindik ere, hala nola independentzia judizial ahulak, erabaki judizialen motibazio nahikorik ezak, inpunitateak eta giza eskubideen urraketan biktimek prozesu penalean parte hartzeko izaten dituzten mugek.

Ustelkeria eta inpunitate orokortuak, justiziarako sarbide mugatuarekin batera, kriminalizazioa gertatzea ahalbidetzen eta errazten du, beste errepresio mota batzuekin konbinatuta, giza eskubideak sustatu eta defendatzeko bidezkoa eta beharrezkoa den lana isilarazteko eta geldiarazteko. Egoera horretan, **Babes Mekanismo Nazionala**, zeina Giza Eskubideen Babeserako Idazkariordetzaren mende dagoen, **eskasa da oraindik**³¹, nahiz eta egungo gobernuak hobekuntzak egiteko ahaleginak egin dituen barneberregituraketako eta lurraldeetan mugikortasun handiagoa izateko prozesu baten bidez. Hala eta guztiz ere, aitortu behar da Honduras dela giza eskubideen defendatzaileak babesteko mota horretako mekanismo bat duen herrialde bakarretako bat eskualdean.

Antolakunde eta mugimendu sozialek adierazten dute defendatzaileen babes-beharrei oso hein txikian erantzuten zaiela oraindik ere, erantzunen irismena mugatua izaten dela eta ez dagoela aurrekontu egoki edo nahikorik. Halaber, adierazi dute mekanismoak ez duela ikuspegi diferentzialik eta kolektiborik. Aitzitik, ikuspegi poliziala nagusitzen da, eta horrek segurtasun-ondorio larriak izaten ditu defendatzaileentzat. Hain zuzen ere, kasu batzuetan, mekanismoaren poliziak berak erasotzen die edo lekuko gisa agertzen dira haien aurkako kausetan, kriminalizazioa pairatzen dutenean. Gainera, ziurtatzen dute mekanismoak lurraldeetan presentzia handiagoa izan behar duela, komunitateek eta antolakundeek ez baitute behar bezala ezagutzen, edo neurri batean bakarrik ezagutzen baitute. Hala, ez dakite nola funtzionatzen duen edo ez dakite aurrez aurre dituzten arrisku-egoerentarako babes eska dezaketela.

Hori horrela, kolektibo sozialen eskaerak argiak dira. Babes Mekanismo Nazionala sendotu eta finkatu egin behar da, herritarrei ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia izango dituen babes integraleko tresna bat eskaintzeko, defendatzaileen arrisku-egoera

³¹ Giza Eskubideak Babesteko Idazkaritza Giza Eskubideen Estatu Idazkaritzaren barruan dago, eta eskubide-urraketa mehatxupean dauden pertsonen bizitza babesteaz arduratzen da. Horretarako, lanean dihardu gatazka sozialei aurrea hartzeko, baita indarkeriaren ondorioz barne-desplazamenduak izan dituzten pertsonen eta giza eskubideen defendatzaileei, kazetariei, gizarte-komunikatzaileei eta mehatxatutako justizia-operadorei arreta eta babes emateko ere.

gizatiartu eta laguntzeko ardura izango duena; halaber, baliabide material eta giza baliabide egokiak eman behar zaizkio, eta arrisku-azterketa zehatzagoak egiteko metodologiak ezarri.

HIRUGARRENA – Ontzat jotzen dugu ZEDES Legea indargabetzea eta Barne Desplazatuaren Prebentzio, Laguntza eta Babeserako Legea onartzea, baita Estatu Demokratikoa Berreraikitzeke Legea onartzea ere, eta gertaerak ez errepikatzea.

Gure kezka adierazten dugu ZEDES Legearen indargabetzea aplikatzeko behar den prozesuaren inguruan, eremu horiek kudeatzen dituzten enpresa multinazionalak auziak eta arbitrajeak aurkezten dituztelako eta komunitateen aurkako jazarpenak, utzarazteak eta lekualdatzeak bere horretan jarraitzen dutelako, Estatu eta nazioarteko araudietako bermeak eta eskakizunak alde aurretik bete gabe erauzketa-proiektuak ezartzeko asmoz.

Hondurasko Gobernuari eskatzen diogu egoera hori errotik alda dezala, eta pertsonen eta komunitateen eskubideak berma ditzala, legearen esparrutik kanpo dauden Estatu eta Estatuaz kanpoko eragileen interesen eta jardueren aurrean.

2022ko apirilean, azken urteetako aldarrikapen sozialei erantzuteko, Xiomara Castroren gobernuak iragarri zuen Enplegu eta Garapen Ekonomikorako Zonen (ZEDE)³² Lege Organikoa indargabetuko zela. Aurrerapauso garrantzitsua izan zen hori, baina ez da nahikoa, **lurra eskuratzeko gatazka handiak izanda herrialdean**. Meatzaritzako proiektu handiek, hidrokarburoei loturikoek, proiektu hidroeletrikoek, monolaborantzak, basogintzak eta turismo-proiektu handiek esku gutxi batzuetan kontzentratzen dute lurra, eta ekoizle txiki eta ertainak desplazatu egiten dituzte, batez ere 2020an nekazaritza- eta industria-sektorea eta nekazaritzako esportazioen sektorea lehentasun nazional izendatu zirenetik³³. Hala, finka handiek legezkotasun zalantzarikoko tituluak dituzte, eta nekazaritza-erreformaren onuradun diren nekazari-taldeek, berriz, ez dute oraindik behin betiko titulurik, eta lur indigenen eta afrikarren ondorengoen lurren saneamenduan eta berreskurapenean egindako aurrerapenak ez dira aski izan³⁴.

Nekazarien mugimenduak salatzen du jabetza pribatuko lurren % 80k ez duela titulazio egokirik, eta horrek segurtasun juridikori ez izatea dakarrela, modu kezagarrian, **lurra edukitzeari, erabiltzeari eta gozatzeari dagokienez**, batez ere emakumeen kasuan, kontuan hartuta «tituluak esleitzean eta landa-eremuetako gizon eta emakumei ematen zaizkien onibarren tamainan dagoen arrakala³⁵». Eta, ondorioz, Landa Eremuko

³² [Ley zonas empleo desarrollo eco 2013.pdf \(tsc.gob.hn\)](#).

³³ PCM 030-2020 dekretu exekutiboa.

³⁴ [Asteko analisisia | «El desalojo violento de la comunidad Garífuna de Punta Gorda y la herencia de los marcos jurídicos de la narco dictadura».](#) – Cespada

³⁵ 2011. eta 2020. urteen artean, Nekazaritza Institutu Nazionalak, guztira, 78.975 jabetza-titulu eman zituen Estatuan, eta horietatik % 37 baino ez zitzaizkien eman emakumezkoen. Articulación de Mujeres de

Emakumeentzako Kreditu Solidarioaren Programa Nazionala (CREDIMUJER)³⁶ ezartzeko eskatzen dute, zeina duela zenbait urtetik garatzeke dagoen, baita «egiazko Nekazaritza Erreforma Integralaren Lege bat» onartzeko ere, «landa-garapenerako genero-ekitatea kontuan hartzen duena, nekazari-familien segurtasun juridikoa bermatzeko».

Nekazariak eta herri indigenak eta garifun herriak beren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak erabat erabili ahal izateko funtsezkoak diren lurak ezin eskuratzea arazo historikoa da, larriagotu egin dena lurra eduki, erabili eta gozatzeko segurtasun juridikorik ez izateagatik, antzinako arbasoen tituluei jabetza-tituluak gainjartzeagatik eta agintariak komunitate indigenen eta nekazarien eskubideak bermatzeko gaitasun mugatua izateagatik³⁷. Lurzoru-emakiden ugaritasuna, gainera, aurretiaz kontsulta libre, informatu eta kulturalki egokia izateko eskubidearen urraketan oinarritzen da —eskubide hori LANEren 169. hitzarmenean jasotako dago—, eta ugaritasun horrek jatorrizko herrien antzinako lurraldeei eragiten die bereziki.

Lurjabeek eta nekazaritza-industriak etengabe erasotzen diete jatorrizko herriei eta nekazari-komunitateei, lurraren eta lurraldearen defentsa legítimoa egiteagatik, eta batzuetan estatu-erakundeek erasotzen diete; haien eskubideen eta osotasun fisikoaren aurka egiten dute, militarizazioa eta kriminalizazioa erabiltzen dituzte haien aurka, eta lurraldeetako erresistentzia-prozesuak lohitzen dituzte, herrialdearen ezegonkortasuna haiei egotziz. Horiek horrela lurraren eta ingurumenaren aldeko lanean jarduteko herrialde arriskutsuetan bigarrena da Honduras, 2020ko iritzien arabera.³⁸

2010 eta 2021 bitartean, Hondurasen gutxienez 2.470 pertsona kriminalizatu zituzten lurraren eta lurraldearen alde egindako lanarengatik.³⁹ Legediaren erabilera maltzurra eginez, ohikoa da lurraren eta lurraldearen defendatzaileak kriminalizatzea, beren antzinako lurraldeak ustez usurpatu izana egotzita, eta, kasu askotan, kautelazko neurriak hartzea, hala nola behin-behinean espetxeratzea, eztabaidan dauden lurretan sartzeko debekua jartzea edo epaitegian aldizka aurkezteko betebeharra izatea, eta horrek norberaren baitan, familian eta komunitatean eragin emozional eta ekonomiko handia du.

Jazarpen- eta kriminalizazio-estrategia horiek funtzionatzen ez dutenean, hilketara jotzen dute. Gobernu berria iristearekin batera, lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileak ziurtatzen zuten bazutela nolabaiteko itxaropena gauzak alda zitezten, baina ez du asko iraun, urtarrilean izandako indarkeria-gorakadarengatik neurri batean; hauek hil zituzten: Aly Domínguez eta Jairo Bonilla, Guapinoleko ingurumenaren eta uraren defendatzaileak; Omar Cruz Tomé, Los Laureles Nekazaritza eta Abeltzaintza

La Vía Campesina – CODIMCA, *Situación actual de las mujeres rurales en Honduras. El acceso a los recursos productivos para garantizar su seguridad y soberanía alimentaria*. 2021eko iraila.

³⁶ 110/2015 Dekretua.

³⁷ Ibidem, 18. or.

³⁸ Global Witness, *Última línea de defensa*, 2021eko irailaren 13a.

³⁹ LVC Honduras eta CNTC, *Criminalización y Judicialización de Personas Defensoras de Tierra y Territorio*, 2021eko urria. <https://www.cntc.hn/pronunciamientos/p01-criminalizacion-DDTT.html>.

Kooperatibako presidentea; Cristy Espinoza, Janahira Castillo eta Ana Castillo, iparraldeko kostaldeko komunitate bateko emakume garifunak, Atlantidakoak, eta Geovany Mejía, Tolupán lider indigena.⁴⁰



Kezkagarriak dira, halaber, Estatuko indarrek eta lurjabeen eta enpresa pribatuen segurtasun-indar pribatuek **indarra erabiliz egindako utzarazte masiboak**, batez ere Kode Prozesal Penalaren erreformaz geroztik, kontrol judizialik gabeko berehalako eta prebentziozko utzarazteak ahalbidetzen baititu.⁴¹ Behar diren bermeak bete gabe eta antzinako titulurik duten edo lurra edukitzeko beste modu bat duten egiaztatu gabe antolatutako utzarazte behartu horietan, etxea eta bizibidea galtzen dituzte familia askok. EAEko ordezkartzaren bisitan, giza eskubideen antolakundeek eta kolektibo sozialek ohartarazi zuten Punta Piedra eta Triunfo de la Cruz komunitate garifunetako egoera zela bereziki kritikoa⁴². Lehenago, 2022ko azaroan, armadak eta poliziak bortizki utzarazi zuten Punta Gordako garifun komunitatea, familien ondasunak suntsitu zituzten eta sei buruzagi atxilotu eta gero judizializatu⁴³.

Azkenik, Herrialdean Desplazatutako Pertsonen Prebentzio, Arreta eta Babeserako Lege berria aurrerapauso handia bada ere herrialdearentzat, **beharrezkoa izango da migrazioaren egiturazko arrazoiei eta barne-desplazamenduei aurre egiteko estrategia integral bat izatea**, pertsonen eta komunitateen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak bermatuko dituen, landa-lurra eskuratzearen ondoriozko gatazkak jorratuko dituen eta herritarrak eta ingurumena babestuko dituen interes ekonomiko

⁴⁰ [«Alerta en Honduras: asesinaron a Abelino Sánchez, defensor de la tierra y del territorio de la CNTC» - Mundubat](#) eta [«Honduras:Asesinato del líder indígena Tolupán Melvin Geovany Mejía Rodríguez» \(fidh.org\)](#)

⁴¹ Kode Prozesal Penalaren 26-B eta 224-A artikulua, 2021eko urriaren 7ko erreformaren arabera.

⁴² 2015ean, CIDHK, epai batean, Hondurasko Estatuari erantzukizuna egotzi zion, komunitate horien aurretiazko kontsulta libre eta informatua izateko eskubidea ez betetzeagatik. Epai horren gomendioak oraindik ez dira bete.

⁴³ [Asteko analisisa | «El desalojo violento de la comunidad Garífuna de Punta Gorda y la herencia de los marcos jurídicos de la narco dictadura».](#) – Cespap

eta agroindustrial handietatik eta Estatuko zein Estatua ez diren eragileen legez kanpoko jardueretatik.

LAUGARRENA – Kezka adierazten dugu feminizidio-tasa gora egiten ari delako; izan ere, 2022an 252 emakume hil zituzten, eta aurten egunean bat, datu kezagarria oso, eta % 95ekoa da inpunitate-indizea.

Ontzat jotzen dugu Emakumearen Institutua Estatuko Idazkaritzara eramateko gobernuak hartutako neurria, baita Feminizidioen Jarraipenerako Batzorde bat egotea ere.

Idazkaritza horren lana indartzeko eskatzen diogu Hondurasko Gobernuari, emakumeen eskubideak bermatzen dituzten politika publikoak diseinatu eta ezar ditzan, eta batzordearen lana bultzatuz. Era berean, CEDAWren Protokoloa berresteko eskatzen diogu Kongresuari.

Honduras Latinoamerikako herrialde arriskutsuenetako bat da emakume izateko, emakumeen aurkako indarkeriaren indizea eta delituzko gertaera horien inpunitatearen indizea benetan kezagarriak baitira. Ordezkaritza honekin bildu den giza eskubideen aldeko emakumezko batek dioenez, «Hondurasko emakumeen biziak ez du inolako baliorik».

2022an, Emakumeen Eskubideen Zentroak 297 emakumeren indarkeriazko hilketak erregistratu zituen, hedabide inprimatu eta digitaletan bildutako informazioaren arabera⁴⁴. Gainera, salatzen du % 4 bakarrik jo zirela legez feminizidiotzat, eta horrek agerian uzten duela Ministerio Publikoak ez duela kontuan hartzen gizonen eta emakumeen arteko harreman desorekatua, ezta genero-ikuspegia ere salaketak ikertzeko eta erregistratzeko prozesuetan, eta kasu gehienak giza hilketa gisa tipifikatzen dituela, hau da, zigor txikiagoak jasotzen dituen delitu gisa⁴⁵. 2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 8ra, indarkeriazko 83 heriotza izan dira (38 urtarrilean, 36 otsailean eta 8 martxoan)⁴⁶, eta horrek goranzko joera erakusten du.

Larrialdien Sistema Nazionalak eta Ministerio Publikoak erregistratutako salaketetatik abiatuta, Emakumeen Eskubideen Zentroak emakumeen bizitzaren aurkako beste delitu batzuei buruzko zifra kezagarriak bistaratu ditu: % 26 egin dute gora 2021ekin alderatuta. Honako kasu hauek kontabilizatu dira: 105 hilketa-saio; 196 desagerpen (erailketa ekar dezakeen delitua edo sexu- eta lan-esplotazioa ekar dezakeen delitua); 107.848 salaketa etxeko indarkeriagatik; eta 2.944 sexu-indarkeria kasu baino gehiago; beraz, egunero, zortzi emakumek gutxienez sexu-eraso bat salatzen dute (kopuru hori, ustez, askoz handiagoa da, tokiko zenbait fiskaltzak ez baitzioten informazioa eguneratu

⁴⁴ [2022 | Emakumeen Eskubideen Zentroa \(derechosdelamujer.org\)](#)

⁴⁵ [Emakumeen Eskubideen Zentroa, *Violencia contra las mujeres en Honduras 2022*. 2023ko martxoa.](#)

⁴⁶ [2023 | Emakumeen Eskubideen Zentroa \(derechosdelamujer.org\)](#).

Ministerio Publikoari 2022an zehar)⁴⁷. Salatutako kasuak bakarrik kontuan hartuta, 2022ko urtariletik ekainera, 18 urtetik beherako 609 neskatila bortxatu zituzten⁴⁸.



Emakumeen aurkako indarkeria handia are gehiago larritzen du **% 95eko inpunitate-indizeak**, eta hori «justiziarako eta genero-ekitaterako eragozpen handia» da. Gainera, kasu judizializatuetan (% 5) ez da bermatzen zigorrak gertakarien larritasunaren arabekoak izango direnik.⁴⁹ Bereziki, emakumeen antolakundeek salatzen duten bezala, emakumeen aurkako delituen zigorrak eta tipifikazioak murriztu zirenetik (adibidez, delitu hauenak: feminizidioa, feminizidio larriagotua, pertsonen salerosketa eta bortxaketa).

⁴⁷ Ibidem 45.

⁴⁸ [La deuda estatal con las mujeres hondureñas continúa creciendo en un Estado antiderechos | Emakumeen Eskubideen Zentroa \(derechosdelamujer.org\)](#)

⁴⁹ Nazioarteko Bake Brigadak, *Deconstruir para construir. La situación de Derechos Humanos en Honduras*. 2022ko maiatza.

Giza Eskubideen ministro ohi Karla Cuevak adierazi zuenez, aldaketa horrek «giza eskubideetan atzera egitea» dakar, eta «nazioarteko estandarrekin» bat ez datozen zigorrak jasotzen ditu⁵⁰. Adibidez, CEDAWren⁵¹ 35. Gomendio Orokorren aurkakoa da; gomendio horren arabera, genero-indarkeria kasuetan, zigor penalek «delituaren larritasunaren neurrikoak» izan behar baitute.

Testuinguru horretan, **antolakunde eta mugimendu sozialek** kultura heteropatriarkalaren jarraitutasuna salatzen dute, baita horrek **emakumeentzako politika publiko urriekin** duen lotura ere. Lehenik eta behin, justizia-operadoreek ez dute ezagutza edo prestakuntza egokirik beren jardura profesionalean genero-ikuspegia txertatzeko; bigarrenik, Estatuak ez du bere gain hartu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako babes-etxeen erantzukizun zuzena, gaur egun nazioarteko lankidetzaren finantzaketaren mende baitaude, nahiz eta 2018an emakumeen antolakundeek lege-proposamena bultzatu; eta, hirugarrenik, emakumeen aurkako indarkeria mota guztien kasuan erreparazioa eta osabidea eskaintzeko mekanismoak falta dira, bizirik irten diren emakumeen osasun mentala babesteko estrategiak barne. Era berean, sexu-indarkeriaren biktima izan diren eta bizirik irten diren emakumeei laguntzeko protokolo bat eskatzen dute, berriz ez biktimizatzeke lanean, emakumeen behar psikosozialetan eta osasun-beharretan arreta jarriko duena.

Bestalde, hasieran Castro presidentearengan konfiantza izan arren eta Emakumearen Institutua Estatuko Idazkaritzara⁵² iritsi den arren, gobernu berriak urtebete egin ondoren, emakumeen antolakundeak ez dira oso baikorrak emakumeei eragiten dieten politika publikoetan funtsezko aldaketak txertatzeko aukerari dagokionez, aurrekontua «hutsaren hurrengo» baita oraindik ere.

Azkenik, aipatzekoa da Kongresu Nazionalen Genero Ekitatearen Batzordeak **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala** sozializatzeko eta aztertzeke prozesua hasi zuela 2022ko apirilean. Lege-proposamen hori gizarte zibilak sustatu du, eta Hondurasko emakumeek «genero-arrazoietan oinarritutako inongo indarkeria motarik gabeko bizimodua» izateko duten eskubidea bermatu nahi du. Horretarako, emakumeen aurkako indarkeriaren kausei eta adierazpenei heltzen zaie, lehendik dauden erakundeak indartzen dira eta ekintza berriak sustatzen⁵³.

BOSGARRENA – Hondurasko Gobernuari sexu- eta ugalketa-eskubideen arloan aurrera egiteko eskatzen diogu, neska eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria eta nahi gabeko haurdunaldiak desagerrarazteko. Alde horretatik, larrialdietako pilula antikontzeptiboa

⁵⁰ [«SEDH ve con preocupación rebaja en las penas de delitos de violencia contra la mujer».](#)

⁵¹ Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Desagerrarazteari buruzko Konbentzioa, Hondurasek 1983an berretsia; Protokolo Fakultatiboa eta haren gomendio guztiak izan ezik.

⁵² PCM 05-2022 dekretu exekutiboa.

⁵³ Indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidearen aldeko emakumeak, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Lege-proposamen integrala. 2022ko azaroa.

denentzat eskuragarri egotea galdegiten dugu, eta emakumeen erabakitzeko askatasuna errespetatzea.

Antolakunde eta mugimendu sozialek ohartarazten dute «Elizak garrantzi handia duela eta zenbait fundamentalismo gogor» daudela, emakumeen interesak inola ere ordezkatzan ez dituztenak, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak baldintzatzen dituztenak. Diotenez, «emakumezko presidente bat izateak ez du esan nahi dagoeneko guztia irabazita dagoenik»; izan ere, Kongresu Nazionalean gehiengoa dute eskubideen aurkakoek, eta emakumeen eskubideen aurka egiten dira legeak. Konstituzioaren erreformaren⁵⁴ bidez, abortua erabat debekatzeko berretsi zuen Kongresuak, abortua etorkizunean legeztatzea eragozteko.

2022ko abenduan, larrialdietarako pilula antikonzeptiboaren erabilera baimendu zen, sexu-indarkeriatik bizirik atera ziren emakumeentzat bakarrik. Aurrerapen handia egin zen, herrialde hartan sexu-indarkeriaren indize handiak baitaude.⁵⁵ Hala ere, emakumeen antolakundeek salatzen duten bezala, neurri hori ez da nahikoa, neska, emakume eta haurdun gera daitezkeen pertsona asko babesik gabe uzten baititu, eta, gainera, ospitalera joatera eta osasun-azterketa bat egitera behartzen baititu, sexu-erasoa egiaztatzeko. Horren guztiaren ondorioz, biktimak berriro bihurtzen dira biktima.

Xiomara Castroren egungo gobernuak Honduras emakumeentzat hobea izan zedin hitzeman zituen funtsezko aurrerapenak oraindik ez dira iritsi, eta Honduras munduko azken postuetan dago oraindik sexu- eta ugalketa-eskubideei dagokienez.



⁵⁴ 192-2020 Dekretua, 2021eko urtarrilaren 22an argitaratua, abortatzeko debekua behin betiko finkatzen duena; hala, Kongresu Nazionaleko kideen hiru laurdenen aldeko botoarekin bakarrik alda daiteke. Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Hondurasko Bulegoa, *Informe anual sobre la situación de los derechos humanos en Honduras 2021*. 2022ko martxoan.

⁵⁵ 2022ko urtarrila eta ekaina bitartean, Ministerio Publikoak, guztira, 1.emakume eta neskatuen aurkako sexu-indarkeriako 615 salaketa erregistratu zituen. Emakumeen Eskubideen Zentroak bildutako informazioa hemen: derechosdelamujer.org/wp-content/uploads/2022/10/Hoja-de-Violencia-Sexual-enero-junio-2022.pdf eta https://derechosdelamujer.org/wp-content/uploads/2022/06/Boletin_VS2022.pdf

Larrialdietarako pilula antikonzeptiboan eta antzeko gaietan erreformak egitea beharrezkoa da nazioartean onartutako osasun-estandarrak betetzeko, baina ez da aski, eta beste neurri batzuk ere hartu behar dira, hala nola zerbitzu integralak eta sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko informazio zabala ematea, haurdun gera daitezkeen pertsonen autonomia, duintasuna, intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatuz, eta gorpuztasuna, genero-identitatea eta sexu-orientazioa errespetatuz.

Gainera, sexu- eta ugalketa-eskubideen erabateko erabilera bermatzeak aukera ematen du nahi gabeko haurdunaldiei aurrea hartzeko, eta, neskatoen eta nerabeen kasuan, Emakumeen Eskubideen Zentroak ohartarazten duenez⁵⁶, nahi gabeko haurdunaldiak beste arazo batzuk ere eragiten ditu, hala nola eskola uztea eta, ondorioz, analfabetismoa⁵⁷, pobrezia eta langabezia.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera (OME), urtean 15 eta 19 urte bitarteko 16 milioi nerabe eta 15 urtetik beherako milioi bat neskato ama bihurtzen dira. Hain zuzen ere, **Honduras da nerabeen haurdunaldi-tasa handienetako bat duen herrialdea eskualdean**. 2021ean, Osasun Idazkaritzak (SESAL), ospitale publikoetako datuak bakarrik baliatuz, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeen 21.627 erditze erregistratu zituen, eta 10 eta 14 urte bitarteko neskatoen 920 erditze.⁵⁸

SEIGARRENA – Indarkeria- eta estortsio-indize altuen aurka egiteko neurri egokiak hartu behar direla iritzita, gogoan izan behar dugu neurri horiek proportzionaltasun-, egokitasun- eta premia-printzipioak bete behar dituztela, herritarren eskubide zibil eta politikoak ez urratzeko.

Horren haritik, aurreko printzipioak errespetatzeaz gainera, hartutako neurri bereziak denboran mugatuak izatea gomendatzen dugu.

2022ko abenduaren 3an, konstituzio-berme batzuk eten egin ziren 30 egunez Tegucigalpa, Comayagüela eta San Pedro Sulako 162 auzo eta koloniatan, «indarkeria kriminal antolatuen egoera larria» zela-eta «bakea eta ordena berrezartzeko»⁵⁹. 2023ko urtarrilaren 6an, berme-etenaldia 45 egun luzatu zen 73 udalerritan, herrialdeko hamazazpi departamentutan⁶⁰. Salbuespen-egoera dekretatuta, segurtasun-indarrei eta Ordena Publikoko Polizia Militarri (PMOP) agindua ematen zaie konstituzio-bermeen etenaldiaren aplikazioan parte har dezaten, eta, hala, indarra neurritz gaindi erabiltzeko aukera ematen da, etxeratze-aginduak aplikatzeko eta protestak zapaltzeko, baina horrek atxiloteta arbitrarioak, tratu txarrak eta bereizkeria dakartza eta adierazpen-askatasuna eta giza eskubideen alde egiteko eskubidea erabiltzeko murrizketak. Front Line

⁵⁶ Ibidem 48.

⁵⁷ Estatistika Institutu Nazionalak (NEI), 2022ko lehen hiruhilekoko datuak baliatuz, emakumeen eta neskatoen % 12,2ko analfabetismo-indizea erregistratu zuen landa-eremuan, eta % 6,3koa hiri-eremuetan. Hemen: derechosdelamujer.org.

⁵⁸ Ibidem 48.

⁵⁹ PCM 29-2022 Dekretua

⁶⁰ PCM 01-2023 Dekretua

Defendersek adierazten duen bezala⁶¹, **eskualdean larrialdi-egoerak ezartzeko gero eta joera handiagoa dago eta arrisku handiagoaren pean jartzen ditu defendatzaileak** konstituzio-eskubideak etenda eta segurtasun-indarrei botere bereziak emanda.



Salbuespen-egoerak besterik ezean bakarrik erabili behar dituzte estatuek, eta nazioarteko zuzenbidearen pean dauden betebeharrak guztiak, giza eskubideei dagozkienak barne, erabat errespetatzen direla bermatu behar dute. Hala, ezin da eskubide-etendura hori «normalizatu» neurri integralak eskatzen dituzten kontuetarako⁶².

Segurtasun-indarrei eta indar militarrei eman zitzaizkien botere bereziak ez dira mugatzen 2022ko abenduan ezarritako salbuespen-egoerara; izan ere, 2009ko estatu-kolpeaz geroztik Hondurasen izan den militarizazio gero eta handiagoari erantzuten diote. Hala, Xiomara Castoren gobernuak Hondurasko gizartea pixkanaka desmilitarizatuko duela iragarri arren, **oraindik ere beharrezkoa da zenbait arlo desmilitarizatzeari ekitea**: herritarren segurtasunaren arloan, segurtasun-kidego berezien aginduak berrikusiz, hala nola Ordena Publikoko Polizia Militarren (PMOP) aginduak berrikusiz, zeina aldi baterako sortu baitzen, 2014. urtean; espetxe-sistemaren arloan, indar armatuei 2019an espetxeak administratzeko aldi baterako emandako funtzioak erretiratzu⁶³; eta landa-eremua erabat desmilitarizatzea, militarizazioa indartu

⁶¹ https://www.frontlinedefenders.org/sites/default/files/1535_fld_ga23_web.pdf

⁶² <https://oacnudh.hn/dia-internacional-de-los-derechos-humanos-oacnudh/> eta «[Honduras: Carta abierta a la presidenta de Honduras Xiomara Castro, a un año del inicio de su gobierno](#)» - [Amnesty International \(amnesty.org\)](#)

⁶³CNDS-020/14 Dekretua

egin baitzen indar armatuei nekazaritza-garapenerako programaren kudeaketa esleitu zitzaienean⁶⁴.

ZAZPIGARRENA – Gobernuak eta NBEk Hondurasko Ustelkeriaren eta Inpunitatearen Aurkako Nazioarteko Batzordea (CICIH) sortzeko sinatutako memoranduma baikor hartu dugu, eta laster bere funtzioa betetzeko berme guztiakin martxan jartzea espero dugu.

2022ko otsailaren 17an, Hondurasko egungo gobernuak formalki laguntza eskatu zion Nazio Batuen Erakundeari ustelkeriaren aurka egiteko. Hala, CICIH bat ezartzeko biderei ekin zion, «CICIGek Guatemalan egin zuen» proposamenean oinarrituta (Guatemalako 2019ko irailean desegin zen, alde bakarretik).⁶⁵ Zenbait hilabete geroago, abenduaren 15ean, Nazio Batuen eta Hondurasko Gobernuaren arteko Akordiorako Memoranduma sinatu zen. Dokumentu hori ez zen loteslea, eta CICIH⁶⁶ instalatzeko lanen hasiera adierazten zuen. Ustelkeriaren Aurkako Kontseilu Nazionalak (CNA) azaltzen duen bezala, memorandumak alderdiek etorkizuneko hitzarmen bat sinatu nahi dutela besterik ez du adierazten⁶⁷.

Hain zuzen, aldebiko hitzarmen bat sinatu beharko da, hura sortzeko irizpideak ezartzeko. Hala ere, orain arte egindako aurrerapenak urrats bat dira Hondurasen eta eskualdeko eta nazioarteko erakunde eta mekanismoen arteko lankidetzak ahultzeko. Ez da ahaztu behar 2020ko urtarrilean Hondurasko Parlamentuak ez zuela luzatu lau urteko bigarren aldi batez Hondurasko Ustelkeriaren eta Inpunitatearen Aurkako Laguntza Misioa (MACCIH), AEE Amerikako Estatuaren Erakundearen mendekoa.

Demokraziarako Ikasketa Zentroak (CESPAD) aditzera ematen duenez, «autoritarismotik demokraziara igarotzeko, gizarte zibilaren eta mugimendu sozialen presentzia aktiboa behar da». Hori dela eta, «CICIHren inguruan gobernuak eta Nazio Batuek elkarrizketa- eta negoziazio-prozesua izatea aukera eta erronka da herritarren antolakundeentzat», haien proposamenak eta eskaerak kontuan har daitezen⁶⁸.

Ustelkeriaren Aurkako Koalizioa (CAC) osatzen duten antolakundeek ziurtatzen dute Hondurasko ustelkeriaren eta inpunitatearen aurkako borroka indartzeko CICIHk gutxienez bi urteko indarraldia izan behar duela eta «autonomia, independentzia eta agindu argiak» izan behar dituela⁶⁹. Horren harira, ez da ahaztu behar Hondurasen inpunitate handia dagoela giza eskubideen urraketak izandako hiru une handiren ondorioz batez ere (1980ko hamarkadan segurtasun-doktrina ezartzea, 2009ko estatu-kolpea eta 2017ko hauteskunde-krisia), eta, hori konpontzeko, justizia trantsizionaleko

⁶⁴052-2019 Dekretua, 2022ko apirilean Konstituzioaren aurkakotzat deklaratu zena.

⁶⁵ «Honduras solicita a la ONU crear comisión anticorrupción» (france24.com)

⁶⁶ <https://www.expedientepublico.org/a-paso-de-tortuga-la-cicih-parece-un-poco-mas-cerca-de-llegar-a-honduras/>

⁶⁷ <https://twitter.com/cnahonduras/status/1603563342689406978>

⁶⁸ <https://cespad.org/hn/analisis-semanal-honduras-ya-se-firmo-el-memorandum-de-entendimiento-hacia-la-instalacion-de-la-cicih-y-ahora-que-sigue/>

⁶⁹ PBI Honduras, *Deconstruir para construir. La situación de Derechos Humanos en Honduras*, 2022ko maiatza.

prozesu bat behar da, erantzuleak zehatu eta zigortuko dituen eta biktimei erreparazioa ekarriko diona.

ZORTZIGARRENA – Eskerrak eman nahi dizkiegu antolakundeei, mugimenduei sozialei, Hondurasko erakunde publikoei eta nazioarteko erakundeei eta diplomaziako kideei. Konpromisoa hartzen dugu giza eskubideen defendatzaileen egoerari adi jarraitzeko eta haien lana segurtasunerako arriskurik gabe egin dadin zaintzeko, ordezkariak bere gain hartutako konpromisoari arreta berezia jarritz; horien artean dago, besteak beste, Honduras Diversa elkartearen egoeraren jarraipena egitea.

Konpromiso horiek gehitu egin behar zaizkie Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programaren barruan programa horretan parte hartu zuten defendatzaileen egoera egiaztatzerako 2017an eta 2019an Hondurasera joandako ordezkariak konpromisoari. Beraz, COFADEH Hondurasko Atxilotu eta Desagertuen Senideen Batzordeari eta INEHSCO Hondurasko Komunitaterako Zerbitzuen Institutu Ekumenikoari dagokienez ere badira konpromiso berriok.



BIBLIOGRAFIA

TXOSTENAK ETA ARGITALPENAK

Honduras Diversa elkarteak (2023), *Agenda Legislativa por los Derechos LGBTQI+*, 2023ko urtarrila.

<https://www.washingtonblade.com/2023/04/05/presentan-agenda-legislativa-por-los-derechos-lgbtq-en-honduras/>

Amnesty International (2023), *Carta abierta a la presidenta de Honduras Xiomara Castro, a un año del inicio de su gobierno*. 2023/01/26.

<https://www.amnesty.org/es/documents/amr37/6382/2023/es/>

Articulación de Mujeres de La Vía Campesina Honduras – CODIMCA (2021), *Situación actual de las mujeres rurales en Honduras. El acceso a los recursos productivos para garantizar su seguridad y soberanía alimentaria*. 2021eko iraila.

<http://codimca.org.hn/wp-content/uploads/2021/09/Resumen-Estudio-Situaci%C3%B3n-Actual-de-Mujeres-Campesina-final-Diagramado.pdf>

Nazioarteko Bake Brigadak (2022) *Deconstruir para construir. La situación de Derechos Humanos en Honduras*. 2022ko maiatza.

https://pbi-honduras.org/sites/pbi-honduras.org/files/publications/Deconstruir_para_construir_Situacion_derechos_humanos_2022.pdf

Emakumeen Giza Eskubideen Zentroa (2023), *Violencia contra las mujeres en Honduras 2022*. 2023ko martxoa.

<https://derechosdelamujer.org/wp-content/uploads/2023/04/Boletin-violencia-2022-ODHM.pdf>

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra (CIDH), *Caso Vicky Hernández y otras vs. Honduras. Sentencia de 26 de marzo de 2011. Resumen oficial emitido por la Corte Interamericana*.

https://www.corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/resumen_422_esp.pdf

Front Line Defenders (2023), *Global Analysis 2022*, 2023ko apirilaren 4a.

https://www.frontlinedefenders.org/sites/default/files/1535_fld_ga23_web.pdf

Global Witness (2021), *Última línea de defensa*, 2021eko irailaren 13a.

<https://www.globalwitness.org/es/last-line-defence-es/>

Giza Eskubideen Emakumezko Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimena (2023), *Registro mesoamericano de agresiones contra defensoras. Datos anuales preliminares de El Salvador, Honduras, México y Nicaragua*. 2023ko apirilaren 3a.

<https://im-defensoras.org/2023/04/registro-mesoamericano-de-agresiones-contra-defensoras-2022-datos-anuales-preliminares/>

Indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidearen aldeko emakumeak (2022), *Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Lege-proposamen integrala*. 2022ko azaroa.

<https://derechosdelamujer.org/wp-content/uploads/2023/01/Ley-integral-contra-las-violencias-version-28-OK.pdf>

OACNUDH Honduras (2022), *Informe anual sobre la situación de los derechos humanos en Honduras 2021*, 2022ko martxoa.

https://oacnudh.hn/wp-content/informe2022/INFORME_ANUAL_2021_OACNUDH_WEB_.pdf

Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Hondurasko Sare Nazionala (2022), *Informe de Derechos Humanos. Año 2021 – enero a junio 2022*. 2022ko azaroa.

<https://redefensorashn.red/informe-de-derechos-humanos-ano-2021-primer-semestre-de-2022>

WEBGUNEAK

Amnesty International, <https://www.amnesty.org/>

Landako Langileen Zentral Nazionala (CNTC), <https://www.cntc.hn>

Emakumeen Giza Eskubideen Zentroa, <https://derechosdelamujer.org/>

Demokraziarako Ikasketa Zentroa (CESPAD), <https://cespad.org.hn/>

ConexiHon – Beldurra gainditzeko komunikazioa, <http://conexihon.hn/>

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, <https://www.corteidh.or.cr/>

Criterio, <https://criterio.hn/>

En alta voz, <https://enaltavoz.com/>

Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Federazioa, <https://www.fidh.org/es>

Mundubat Fundazioa, <https://www.mundubat.org/>

Front Line Defenders, <https://www.frontlinedefenders.org>

Guapinol Resiste, <https://www.guapinolresiste.org/>

HRD Memorial, <https://hrdmemorial.org/>

Giza Eskubideen Emakumezko Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimena, <https://im-defensoras.org>

NBE Honduras, <https://honduras.un.org/es>

Amerikako Estatuen Erakundea (AEE), <https://www.oas.org/es/cidh/>

Presentes, <https://agenciapresentes.org>

Cattrachas Sare Lesbikoa, <https://www.cattrachas.org>

Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Hondurasko Sare Nazionala, <https://redefensorashn.red>

Reportar sin Miedo, <https://reportarsinmiedo.org/>

Reporteros de Investigación, <https://reporterosdeinvestigacion.com>

Washington Blade, <https://www.washingtonblade.com>